

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 766/2008 (EE) ARAUDIA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko uztailaren 9koa, Kontseiluaren 515/97 (EE) Araudia, aduana- eta nekazaritza-esparruetako araudiak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, estatu kideetako autoritate administratiboen arteko elkarren arteko laguntzari, eta horien eta Batzordearen arteko lankidetzari buruzkoa aldatzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO N° 766/2008/CE, DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 9 de julio de 2008, por el que se modifica el Reglamento (CE) n° 515/97 del Consejo, relativo a la asistencia mutua entre las autoridades administrativas de los Estados miembros y a la colaboración entre estas y la Comisión con objeto de asegurara la correcta aplicación de las reglamentaciones aduanera y agraria.» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 218/48 de 13/8/2008)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 766/2008 (EE) ARAUDIA

2008ko uztailaren 9koa

Kontseiluaren 515/97 (EE) Araudia, aduana- eta nekazaritza-esparruetako araudiak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, estatu kideetako autoritate administratiboen arteko elkarren arteko laguntzari, eta horien eta Batzordearen arteko lankidetzari buruzkoa aldatzen duena

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatu eta, bereziki, haren 135. artikulua eta 280. artikulua aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Kontuen Auzitegiaren irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 515/97 (EE) Araudiak ⁽³⁾ aurreko tresna juridikoa hobetu zuen, informazioa gordetzea ahalbidetu baitzuen Erkidego mailako datu-basean, Aduana Informazio Sistema (AIS) delakoan.

(2) Hala ere, 515/97 (EE) Araudia indarrean jarri zenetik lortutako eskarmentuak agerian uzten du, AIS sistemaren helburua ez dela betetzen (hain zuzen ere aduana eta nekazaritza-araudien aurkako eragiketei aurrea hartu, horiek aztertu eta jazarzea) AIS sistema soilik erabiltzen bada behaketak eta txostenak egiteko, modu diskretuan jagoteko eta kontrol zehatzak egiteko.

(3) Europar Batasuna handitu egin da, eta aldaketa nabariak egin dira bertan 27 estatu kide izateko. Horren ondorioz, handitu egin behar da aduanetako lankidetzarako esparrua, eta berriro egin behar da arlo hori.

(4) Estatu kideek eta Batzordeak Erkidegoaren zuzenbidean egindako arau-hausteen prebentzio, ikerketa, jazarpen eta zigortzean egin beharreko lankidetzaren esparru orokorra aldatu zuten Batzordearen 1999/352/EE, IAEE, Euratom Erabakiak, 1999ko apirilaren 28koak, Iruzuraren Aurkako Europako Bulegoa (OLAF) sortzen duenak ⁽⁴⁾, eta aduanen esparruan teknologiaren informazioa erabiltzeari buruzko Hitzarmenak ⁽⁵⁾, hain zuzen ere Kontseiluaren 1995eko uztailaren 26ko Egintzaren bidez onartutakoak ⁽⁶⁾.

(5) Azterketa estrategiko baten emaitzak lagundu behar die maila goreneko arduradunei iruzurraren aurkako proiektuak, helburuak eta politikak zehazten, baita jarduerak antolatzen eta ezarritako helburuak lortzeko beharrezko baliabideak erabiltzen ere.

(6) Aduana eta nekazaritza esparruetako araudiak errespetatzen ez dituzten edo errespetatzen ez dituztela dirudien pertsona eta enpresen jarduera, baliabide eta asmoen azterketa egitean, azterketa horren emaitzak kasu zehatzetan neurri egokiak hartzen lagundu behar die aduanetako agintariei eta Batzordeari, era horretan iruzurraren aurkako borrokan ezarritako helburuak lortzeko.

(7) Egun indarrean dagoen tresnarekin, hain zuzen ere 515/97 (EE) Araudian ezarritakoarekin, estatu kide batek AIS sisteman pertsona bati buruz sartutako informazioari buruzko datuak beste sistema batean kopia daitezke, baldin eta estatu kide horrek alde aurretik horretarako baimena eman badu, eta betiere 30. artikuluko 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera ezarritako baldintzak betetzen baditu. Araudian egin nahi diren aldaketen helburua da alde aurretik eman

(1) C 101 EO, 2007.5.4koa, 4. or.

(2) Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko otsailaren 19koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko ekainaren 23koa.

(3) L 82 EO, 1997.3.22koa, 1.or. Azken buruan 807/2003 (EE) Araudiak (L 122 EO, 2003.5.16koa) aldatutako Araudia.

(4) L 136 EO, 1999.5.31koa, 20. or.

(5) C 316 EO, 1995.11.27koa, 34.or.

(6) C 316 EO, 1995.11.27koa, 33.or.

766/2008 (EE) Araudia (EBren Egunkari Ofiziala, L 218/48, 2008/8/13koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

beharreko baimena bakarrik eskatzea datu horiek estatu mailako agintariak eta Batzordearen barne kudeaketa arriskutsuez arduratzen diren zerbitzuek salgaiak kontrolatzeko erabili behar dituztenean.

(8) Ezinbestekoa da esparru juridiko berri batekin osatzea egungo tresna. Helburua da esparru horretan alde aurretik edo egun aduanetan abian dauden ikerketa-espeditenteen identifikazio-fitxategi bat ezartzea. Fitxategi horren helburu nagusia da Kontseiluak 2003ko maiatzaren 8ko Egintzaren bitartez onartutako gobernu arteko aduana-lankidetzaren ekimenaren ondorioa; hain zuzen ere, Egintza horren bidez protokolo bat onartu zen aduanetan teknologiaren informazioa erabiltzeko Hitzarmena ⁽¹⁾ aldatu zuena, aduanetako ikerketa-espeditenteen identifikazio-fitxategia sortzeari dagokionez.

(9) Estatu kideen eta Batzordearen artean aduana arteko lankidetzaren indartzeko, eta 515/97 (EE) Araudiak zehaztutako gainerako xedapenak eragotzi gabe, hainbat datu trukatzeko posible dela bermatu behar da aipatutako Araudian xedatutako helburu batzuk lortzeko.

(10) Bestalde, gobernu arteko aduanetako lankidetzaren, Europar Batasunaren gainerako organoen arteko lankidetzaren eta nazioarteko eta eskualde mailako beste erakundeekin duen lankidetzaren osagarritasun handiagoa bermatu behar da. Bat dator neurri hori Kontseiluaren 2003ko urriaren 2ko Ebazpenean, aduanetako lankidetzarako estrategiari buruzkoan ⁽²⁾, eta Kontseiluaren 2001eko abenduaren 6ko Erabakian, Europol Hitzarmenaren eranskinean zehaztutako nazioarteko delinkuentzia-mota larriekiko Europolek dituen eskumenak handitzeari buruzkoan ⁽³⁾, aipatzen den ideiarekin.

(11) Batzordeak gaitasuna izan behar du diru-laguntzak ez diren bestelako laguntzak emateko (hau da, prestakuntza-jarduerak eta bestelakoak) hirugarren estatuak lotura-arduradunei eta Europako nahiz nazioarteko erakunde eta agentziei, Batzordeak eta Europar Batasuneko gainerako organo eta agentziek abian jarritako jardueren arteko koherentzia sustatzeko, baita beste nazioarteko eta eskualde mailako erakundeek abian jarritakoen artekoa ere; horien barne, organo horiekin jardunbide egokiak trukatu eta, adibidez, Europolen eta Europar Batasuneko Estatu-kideen kanpoko mugetan lankidetzaren eraginkorra kudeatzea Europako Agentziaren (Frontex) artean.

(12) 515/97 (EE) Araudiaren esparruan, Erkidegoaren ikuspegitik, beharrezko baldintzak sortu behar dira aduana-jardueraren bateratuak egiteko. 515/97 (EE) Araudiko 43. artikuluan aipatutako Komiteak gaitasuna izan behar du aduana-jardueraren bateratuetan agintea ezartzeko.

(13) Beharrezkoa da Batzordean azpiegitura iraunkorra edukitzea urte zibil osoan zehar aduana-jardueraren bateratuak koordinatzeko eta, jardueraren jakin bat edo batzuk egiten diren epean, estatu-kideen ordezkariek, hirugarren estatuak lotura-arduradunak, nahiz nazioarteko eta Europako erakunde eta agentziak koordinatzeko, bereziki Europol, Munduko Aduana Erakunde (MAE) eta Interpol.

(14) Datuen Babeserako Europako Ikuskatzaileak bilera bat egin behar du datuen babeserako estatu mailako agintariekin, gutxienez urtean behin, AIS sistemarekin zerikusia duten egiaztapen-arazoei aurre egiteko.

(15) Estatu kideek aukera izan behar dute Europar Batasuneko Tratatuaren 29. eta 30. artikuluetan xedatutako aduana-lankidetzaren esparruan aduana-jardueraren bateratuak egiteko azpiegitura hori berrerabiltzeko, Europolen papera eragotzi gabe. Kasu horretan, Kontseiluak ezarritako talde eskudunaren agindupean egin behar dira aduana-jardueraren bateratuak, Europar Batasunaren Tratatuaren VI. tituluan aipatzen den aduana-lankidetzari dagokionez.

(16) Bestalde, merkatu berriak garatu direnez, merkataritza gero eta nazioartekoagoa denez, merkataritza-bolumena nabarmen handitzen ari denez, eta salgaien garraioan gertatzen ari den azelerazioa dela-eta, aduanetako administrazioek aurrera egin behar dute bilakaera horien arabera, Europako ekonomiaren garapenari kalterik ez egiteko.

(17) Helburu nagusia da eragile guztiek dokumentazio guztia alde aurretik ematea, eta aduanetako agintarien arteko loturak erabat informatizatzea. Bien bitartean, egungo egoerak bere horretan jarraituko du, estatu mailan sistema informatikoek garapen-maila ezberdina izango dute, eta iruzurraren aurkako borrokarako mekanismoak hobetu egin behar dira, oraindik ere desbiderapenak sor baitaitezke merkataritza-trafikoan.

(1) C 139 EO, 2003.6.13koa, 1. or.

(2) C 247 EO, 2003.10.15koa, 1. or.

(3) C 362 EO, 2001.12.18koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(18) Iruzurraren aurkako borrokan, beraz, badirudi beharrezkoa dela informazioa jatorritik ahalik eta gertuen bilatzea, aduana-sistemak berriro eta modernizatzeaz gain. Gainera, bidezkoa da nazioarteko hornidura-katean zerbitzuak ematen lan egiten duten erakunde publiko nahiz pribatu nagusien eskutik jasotako datuak gordetzea Europako datu-base nagusi bateratuan, estatu kideetako agintari eskudunei aduana- eta nekazaritza-esparruetako araudien aurkakoak izan daitezkeen salgai-mugimenduak antzematen laguntzeko, baita horretarako erabilitako garraiobide eta edukiontzia ere.

(19) Datu-pertsonalen tratamenduaren aurrean pertsona fisikoen babesa arautzen du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 95/ 46/CE Zuzentarauak, 1995eko urriaren 24koak, datu pertsonalen tratamenduaren aurrean pertsona fisikoak babesteari eta datu horien joan-etorri askeari buruzkoak ⁽¹⁾, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/58/CE Zuzentarauak, 2002ko uztailaren 12koak, datu pertsonalen tratamenduari eta komunikazio elektronikoen sektorean intimitatea babesteari buruzkoak (Pribatutasunari eta komunikazio elektronikoei buruzko Zuzentarauak) ⁽²⁾; araudi horiek erabat aplikagarriak dira informazioaren gizarteko zerbitzuetan. Zuzentaru horiek Erkidegoko esparru juridikoa ezartzen dute datu pertsonalen esparruan. Horregatik, gai hori ez da Araudi honetan jorratu behar, barne-merkatuaren eta, bereziki, estatu kideen artean datu pertsonalen joan-etorriaren funtzionamendu egokia bermatzeko. Araudi hau aplikatu eta betearaztean, datu pertsonalak babesteari buruzko arauak bete behar dira, bereziki iruzurrari aurrea hartu eta iruzurra antzemateko informazioa bildu eta trukatzeari dagokionez.

(20) Hirugarren estatu horrekin datu pertsonalak trukatzean, eragiketa horiek egin baino lehen bermatu behar da datu pertsonalen tratamenduak Erkidegoko xedatutako babes-maila bera dutela hirugarren estatu batean.

(21) Bidezkoa da datu pertsonalak babesteko kontrol-neurriak harmonizatzea, eta Europako Arartekoari egiten zaizkion aipamenak Datuen Babeserako Ikuskatzailearen aipamenekin ordeztzea, betiere Arartekoaren eskumenak eragotzi gabe, 515/ 97 (EE) Araudia aplikatu zenetik, 95/46/CE Zuzentaru estatu kideetan aplikatu denez, eta Batzordeak erakunde bereizi bat sortu duenez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001 (EE) Araudiak, 2000ko abenduaren 18koak, erakundeek eta erkidegoko organismoek datu pertsonalei trataera ematean pertsona fisikoak babesteari eta datu horien joan-etorri askeari buruzkoak ⁽³⁾, xedatutakoaren arabera, Erkidegoko erakunde eta organoek datu pertsonalak erabiltzen dituztenean, pertsona horien askatasun eta oinarrizko eskubideak betetzen direla bermatzeko.

(22) Bidezkoa da 515/97 (EE) Araudia gauzatzeko beharrezko neurriak onartzea Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekainaren 28koak, Batzordeari esleitutako eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzei buruzkoak ⁽⁴⁾, xedatutako moduan.

(23) Bereziki komenigarria da Batzordeari eskumenak ematea, Batzordeak AIS sisteman zer elementu sartu behar diren erabakitzeke, eta AIS sisteman sartu behar direnean nekazaritza-araudien aplikazioari buruzko eragiketak zehazteko. Neurri horiek irismen orokorra dutenez, 515/97 (EE) Araudian funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenez, eta batzuetan Araudi hori funtsezkoak ez diren elementuekin osatzen dutenez, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan xedatutako kontrol-araudiaren prozeduraren arabera hartuko dira.

(24) 515/ 97 (EE) Araudiaren aplikazioari buruzko txostena Tratatuaren 280. artikuluan aplikazioari buruz urtean behin Europako Parlamentu eta Kontseiluari aurkezten zaion txostenaren barnean sartu behar da.

(25) Beraz, bidezkoa da 515/97 (EE) Araudia aldatzea.

(26) Araudi honen helburua da koordinatzea iruzurraren eta Erkidegoaren finantza-interesetan kalteak sor ditzakeen beste edozein jardueraren aurkako borroka. Helburu hori ezin dute estatu kideek bakarrik lortu eta, beraz, ekintzaren dimentsioa eta eraginak kontuan hartuz, helburu hori askoz ere hobeto lor daiteke Erkidego mailan. Horretarako, Erkidegoak neurriak har ditzake, Tratatuaren 5. artikuluan xedatutako subsidiarioratasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan aipatutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, Araudi honetan aurreikusitako neurriak ez dira joango helburu hori lortzeko beharrezko esparrutik harago.

(1) L 281 EO, 1995.11.23koa, 31. or. 1882/2003 (EE) Araudiak (L 284 EO, 2003.10.31koa 1.or.) aldatutako Zuzentaruak.

(2) L 201 EO, 2002.7.31koa, 37. or. 2006/24 (EE) Araudiak (L 105 EO, 2006.4.13koa 54.or.) aldatutako Zuzentaruak.

(3) L 8 EO, 2001.1.12koa, 1.or.

(4) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa 11.or.) aldatutako Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(27) Araudi honek oinarritzko eskubideak errespetatzen ditu, eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren arabera da (1). Zehazki, Araudi honen helburua da bermatzea datu pertsonalak babesten direla (Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutuneko 8. artikulua).

(28) 45/2001 (EE) Araudiko 28. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki, Datuak Babesteko Europako Ikuskariari kontsulta egin zitzaion alde zurretik, eta honek irizpena eman zuen 2007ko otsailaren 22an (2).

ARAU DI HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

515/97 (EE) Araudia aldatu egingo da, eta honela idatzita geratuko da:

1) Hiru puntu hauek gehituko dira 2. artikuluko 1. paragrafoan:

«— “Eragiketen azterketa”. Aduana edo nekazaritza-araudien aurkako diruditen eragiketen azterketa, bi fase hauek osatuko dute hurrenez hurren:

a) informazioa bildu, datu pertsonalak barne;

b) iturriaren eta datuen fidagarritasuna ebaluatu;

c) datu horien eta beste datu esanguratsuen arteko harremanak ikertu, era metodikoan aurkeztu eta interpretatu;

d) oharra, hipotesiak edo gomendioak egin, arriskuei buruzko informazioan zuzenean erabil daitezkeenak, erakunde eskudunek eta Batzordeak nekazaritza eta aduana-araudien aurkako eragiketak antzeman eta ekiditeko erabiltzeko, edo horrelako eragiketetan jardun duen pertsona edo enpresak modu zehatzean identifikatzeko.

— “Analisi estrategikoa”. Aduana eta nekazaritza-araudien aurkako joera orokorrak ikertu eta aurkeztea, horretarako, aduana eta nekazaritza-araudien aurkako hainbat eragiketa-moten mehatxu, irismen eta ondorioak ebaluatuz, era horretan lehenetsiak ezartzeko, fenomeno edo mehatxua hobeto ulertzeko, prebentziorako neurriak birbideratu, iruzurra antzeman eta zerbitzuen antolaketak berrikusteko. Analisi estrategikoetan identifikazio-elementuak ezabatuta dituzten datuak bakarrik erabili ahal izango dira.

— “Elkartruke automatiko erregularra”. Aldez aurretik zehaztutako moduan informazioa sistematikoki komunikatzea, aldez aurretik eskaerarik egin gabe, betiere aldez aurretik ezarritako epeetan.

— “Noizean behineko elkartruke automatikoa”. Aldez aurretik zehaztutako moduan informazioa sistematikoki komunikatzea, aldez aurretik eskaerarik egin gabe, informazio hori eskuragarri dagoen heinean».

2) 2 bis artikulua hau gehituko da:

«2 bis artikulua

Batzordeak edo estatu kide bakoitzeko agintariek beste edozein estatu kiderekin edo Batzordearekin datu hauek trukatu ahal izango dituzte, Araudi honetan bildutako beste xedapenak eragotzi gabe eta bertan zehazten diren helburuak lortzeko, bereziki aduana-aitorpenik aurkezten ez den edo aitorten sinplifikatua aurkezten den kasuetan, aitorten hori osatu gabe badago edo bertan ageri diren datuak faltsuak direla susmatzen bada:

a) sozietatearen izena;

b) izen komertziala;

c) sozietatearen helbidea;

(1) C 364 EO, 2000.12.18koa, 1. or.

(2) C 94 EO, 2007.4.28koa, 3. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- d) enpresaren BEZaren identifikazio-zenbakia;
- e) zerga bereziaren identifikazio-zenbakia (*);
- f) BEZaren edo zerga bereziaren zenbakia erabiltzen ari ote den;
- g) kudeatzaile eta zuzendarien izenak, eta akziodunen izenak, azken informazio hori eskuragarri badago;
- h) faktura zenbakia eta fakturaren igorpen-data, eta
- i) fakturatutako zenbatekoa.

Artikulu hau soilik aplikatuko da 2. artikuluko 1. paragrafoko lehen puntuan xedatutako mugimenduetan.

(*). Kontseiluaren 2073/2004 (EE) Araudian, 2004ko azaroaren 16koan, zerga berezien esparruan administrazio lankidetzari buruzkoan, 22. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz zatian xedatutakoaren arabera (L 359 EO, 2004.12.4koa, 1.or) ezartzen denez».

3) 15. artikulua aldatu eta honela idatzita geratuko da:

- a) paragrafo hau 1. paragrafo izatera pasatuko da;
- b) 2. paragrafo hau gehituko da:

«2. Estatu kide bakoitzeko erakunde eskudunek, halaber, beste estatu kide bateko erakunde eskudun interesatuari informazioa helarazi ahal izango diote, informazio elkartruke erregular edo noizean behinekoaren bitartez, Erkidegoaren eta beste herrialdeen artean mugitutako salgaien sarrera, irteera, zirkulazio, biltegitratze eta helmugari buruz (posta-zirkulazioa barne), baita Erkidegoaren aduana-lurraldearen barnean mugitu diren EBz kanpoko salgaien eta helmuga gisa EBz kanpoko lekuak dituzten salgaiei buruz ere, nekazaritza- edo aduana-araudien aurkako eragiketak direla susmatzen denean, iruzurra ekidin edo antzemateko».

4) 18. artikulua aldatu eta honela idatzita geratuko da:

- a) 1. paragrafoa aldatu eta honela idatzita geratuko da:
 - i) lehen puntuaren ordezkari testu hau jarriko da:

«— Estatu kideetan edo hirugarren estatuetan adarrak dituztenean edo izan ditzaketenean, edo»,

- ii) paragrafo hau gehituko da:

«Batzordeak emandako informazioa jaso ondoren, estatu kideetako agintari eskudunek Batzordeari bidaliko diote iruzurraren aurka hartutako neurriak laburtzen dituen txosten bat, informazio horretan oinarrituta, sei hilabeteko epean. Laburpen horien bitartez, Batzordeak beste estatu kideek hartutako neurrien emaitzei buruzko txostenak bidaliko dizkiete horiei»;

b) 7. eta 8. paragrafo hauek gehituko dira:

«7. Erkidegoko esparruan, analisi estrategikoak eta eragiketa-analisiak egiteko gorde eta erabili ahal izango dira Batzordeak eta estatu kideek 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa aplikatuz trukaturako datuak, aduana-kodeak arriskuak kudeatzeko esparru bateratua ezartzeari buruz xedatutakoa eragotzi gabe.

8. Estatu kideek eta Batzordeak elkarri eman ahal izango dizkiete Araudi honen esparruan egindako azterketa operatibo eta estrategikoen emaitzak ».

5) III. Tituluan, 18 *bis* eta 18 *ter* artikulua hauek gehituko dira:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«18 bis artikulua

1. Batzordeak sortu eta kudeatuko du nazioarteko hornikuntza-jarduerarekin zerikusia duten zerbitzu-emaile publiko edo pribatuei buruzko informazioa duen datu-basea, estatu kideen eskumenak eragotzi gabe, 1. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako agintari eskudunei aduana- eta nekazaritza-araudien aurkakoak izan daitezkeen salgai-mugimenduak antzematen laguntzeko, eta horren barne garraiobideak eta edukiontziak ikuskatzeko. Arestian aipatutako erakundeek sarbide zuzena izango dute datu-base horretara.

2. Batzordeak eskubide hauek ditu datu-base horren kudeaketa-esparruan:

a) Datuak kontsultatu edo ateratzeko, edozein baliabide edo era erabiliz, baita datu horiek berrerabiltzeko ere jabetza intelektualaren eskubideen esparruan aplikagarria den legediari jarraiki; datu horiek ikusi edo ateratzeko baldintza eta modalitateak arautuko ditu Batzordearen (Europako Erkidegoaren izenean) eta zerbitzu emailearen artean egindako hitzarmen teknikoak.

b) Datu-basean kontsultatu edo handik ateratzen diren datuak erkatzeko, beste informazio-iturrien bitartez osatzeko, eta baita datu horiek aztertzeko ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 45/2001 (EE) Araudiak, 2000ko abenduaren 18koak, Erkidegoko erakunde eta organismoek datu pertsonalei eman beharreko tratamenduari eta datu horien joan-etorri askeari buruzkoak (*), xedatutakoaren arabera.

c) Datu-base horretako datuak 1. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako erakundeentzako eskuragarri jartzeko, horretarako datu-prozesamendurako teknika informatikoak erabiliz.

3. Artikulu honetan aipatutako datuak edukiontzi eta garraiobideen mugimenduei buruzkoak dira bereziki, baita mugimendu horietan parte hartzen duten salgai eta pertsonen buruzkoak ere. Eskuragarri daudenean, datu hauek izango dituzte:

a) Edukiontzien mugimenduen kasuan:

— edukiontzi-zenbakia

— edukiontziaren zama-egoera

— mugimenduaren data

— mugimendu-mota (zamaduna, zamarik gabea, ontzi-aldaketa, sarrera, irteera, eta abar)

— itsasontziaren izena edo garraiobidearen matrikula

— bidaia-zenbakia

— lekua

— garraio-gutuna edo garraiorako bestelako dokumentua

b) Garraiobideen mugimenduen kasuan, datu hauek:

— itsasontziaren izena edo garraiobidearen matrikula

— garraio-gutuna edo garraiorako bestelako dokumentua

— edukiontzi-kopurua

— zamaren pisua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- salgaien deskribapen edo kodetzea
- erreserba-zenbakia
- zigilu-zenbakia
- lehen zamaketaren lekua
- azken deskargaren lekua
- ontzi aldaketarako lekuak
- azken deskargarako lekura iristeko aurreikusitako data.

c) a) eta b) idatz-zatietan aipatutako mugimenduetan aritutako pertsonen kasuan, abizenak, ezkongabetako abizenak, izenak, aurreko abizenak, ezizenak, jaiotegun eta jaioterria, nazionalitatea, sexua eta helbidea.

d) a) eta b) idatz-zatietan aipatutako mugimenduetan aritutako enpresen kasuan, enpresaren izena, izen komertziala, sozietatearen helbidea, erregistro-zenbakia, BEZerako identifikazio-zenbakia, zerga bereziko identifikazio-zenbakia eta jabe, igorle, hartzaile, iragaile, garraiolari eta nazioarteko hornidura-katean parte hartzen duten gainerako pertsona eta bitartekarien izenak.

4. Batzordearen barnean, horretarako izendatutako analistek bakarrik izango dute eskubidea 2. paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan aipatutako datu pertsonalen tratamendua egiteko.

Berehala ezabatuko dira helburu hori lortzeko beharrezkoak ez diren datu pertsonalak, edo ez dute identifikazio-elementurik izango. Edonola ere, datu horiek ezingo dira gorde hiru urte baino gehiagoko epean.

18 ter artikulua

1. Batzordeak gaitasuna izango du hirugarren estatuak eta Europako nahiz nazioarteko erakundeetako lotura-arduradunei finantza-laguntza ez den bestelako jarduerak emateko; hots, prestakuntza-jarduerak eta laguntza-teknikoa.

2. Batzordeak aholkularitza teknikoa eta laguntza teknikoa nahiz logistikoa, prestakuntza edo komunikazio-jarduerak edo Araudi honetako helburuak lortzeko laguntza eraginkorra eman ahal izango die estatu kideei, baita Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuaren 29. eta 30. artikuluetan aipatutako aduanetako lankidetzaren esparruan estatu kideek bere betebeharrak betetzeko laguntza ere.

(*) L 8 EO, 2001.1.12koa, 1.or.».

6) 19. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«19. artikulua

Ukitutako hirugarren estatuak konpromiso juridikoa hartu badu laguntza emateko aduana- edo nekazaritza-araudien aurkakoak diren eragiketen izaera irregularra frogatzeko elementu guztiak biltzeko, eta konpromiso juridikoa hartu badu araudi horien aurkakoak diren eragiketen irismena zehazteko, era honetan jakinarazi ahal izango zaio Araudi honetan xedatutakoa aplikatuz eskuratutako informazioa:

— Batzordearen edo ukitutako estatu kidearen eskutik, edo informazio hori eman duen estatu kideko erakunde eskudunekin egindako hitzarmenaren bitartez, edo

— Batzordearen edo ukitutako estatu kideen eskutik, ekintza hitzartu baten esparruaren barnean, eta informazioa estatu kide batek baino gehiagok eman badute, informazio hori eman duten estatu kideetako erakunde eskudunekin alde zuzeneko hitzarmenaren bitartez.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Estatu kide batek informazio hori jakinaraztean, indarrean dauden barne-xedapenak bete beharko dira datu pertsonalak hirugarren estatuetara transmititzeko.

Edonola ere, bermatu beharko da ukitutako hirugarren estatuko arauak 45. artikuluko 1. eta 2. paragrafoan xedatutako babes bera ematen dutela».

7) d) idatz-zatia ezabatuko da 20. artikuluko 2. paragrafoan.

8) 23. artikulua aldatu egingo da, eta honela idatzita geratuko da:

a) 2. paragrafoaren ordez, honako testu hau jarriko da:

«2. Araudi honetan xedatutakoari jarraiki, AIS sistemaren helburua izango da aduana- eta nekazaritza-araudien aurkako eragiketak saihestu, ikertu eta jazartzea, informazioa azkarrago ematea eta, era horretan, Araudi honek xedatutakoari dagokionez, erakunde eskudunen lankidetzaz eta kontrol-prozeduren eraginkortasuna handitzea».

b) 3. paragrafoan, «K.1 artikuluko 8. paragrafoan» barik «29. eta 30. artikuluetan» idatziko da.

c) 4. paragrafoan «43. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako prozedura» barik «43. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako kontrol-dun araudi-prozedura» idatziko da.

d) 5. paragrafoa ezabatu egingo da.

9) 24. artikuluan, idatz-zati hauek gehituko dira:

«g) salgaien atxikipenak, bahiturak edo konfiskazioak;

h) esku-dirua atxikitzea, bahitzea edo konfiskatzea, Erkidegoan sartu edo irteten den esku-diruaren kontrolari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1889/2005 (EE) Araudiaren 2. artikuluan xedatzen den bezala (*).

(*) L 309 EO, 2005.11.25ekoa, 9. or.».

10) 25. artikuluan ordez honako testu hau jarriko da:

«25. artikulua

1. 43. artikuluko 2. paragrafoan aurreikusitako kontrol-dun araudi-prozedurek xedatutakoaren arabera, erabakiko da 24. artikuluko a) eta h) idatz-zatien bitartean aipatutako maila bakoitzari dagozkion zein elementu sartu behar diren AIS sisteman, sistema horren helburuak lortzeko beharrezkoak diren heinean. Ez da inoiz datu pertsonalik sartuko 24. artikuluko e) idatz-zatian aipatutako mailan.

2. 24. artikuluko a) eta d) idatz-zatien bitartean aipatutako mailei dagokienez, informazio hau bakarrik agertuko da datu pertsonaletan:

a) abizenak, ezkongabetako abizenak, izena, aurreko abizenak eta ezizenak

b) jaioteguna eta jaioterria

c) nazionalitatea

d) sexua

e) nortasun-agiriaren zenbakia (pasaporte, nortasun-agiria, gidabaimena) eta agiri horren igorpen-data nahiz lekua

f) helbidea

g) benetako eta behin betiko ezaugarri fisiko guztiak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

h) prebentzio-kodea (bertan zehaztu beharko da pertsona batek armaren bat edo indarkeria erabili duen edo agintariengandik ihes egin duen)

i) datuak sisteman sartzeko arrazoia

j) proposatutako neurriak

k) garraio-bidearen matrikula-zenbakia.

3. 24. artikuluko f) idatz-zatian aipatutako mailari dagokionez, adituen izen-abizenak bakarrik agertuko dira datu pertsonaletan.

4. 24. artikuluko g) eta h) idatz-zatien bitartean aipatutako mailei dagokienez, informazio hau bakarrik agertuko da datu pertsonaletan:

a) abizenak, ezkongabetako abizenak, izena, aurreko abizenak eta ezizenak

b) jaioteguna eta jaioterria

c) nazionalitatea

d) sexua

e) helbidea

5. Datu pertsonalen barne, inoiz ez dira aipatuko arraza- edo etnia-jatorriari buruzko datuak, ezta iritzi politikoak, erlijio- edo filosofia-sinesmenak, sindikatu-afiliazioa, edo osasun nahiz sexu-bizitzari buruzko datuak ere».

11) 27. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«27. artikulua

1. 24. artikuluko mailei dagozkien datu pertsonalak AIS sisteman sartuko dira, proposatutako neurri hauen helburuetarako bakarrik:

a) behaketak eta txostenak egiteko

b) jagoletza diskretua egiteko

c) berariazko kontrolak egiteko, eta

d) azterketa operatiboak egiteko.

2. AIS sisteman sartu ahal izango dira 24. artikuluan aipatutako datu pertsonalak, baldin eta jarduera ilegalak badaude laguntza-esparruan emandako informazioaren ondorioz nahiz aldez aurretik, pertsona jakin bat Erkidego mailan nahiko garrantzia duten aduana- edo nekazaritza-araudien aurkako eragiketarako egin dituen edo horrelakoak egin nahi dituen aztarna ukaezinak badaude».

12) 34. artikuluko 3. paragrafoaren ordez honako testu hau jarriko da:

«3. Araudi honek datu pertsonalen inguruan zehaztutako xedapenak behar bezala aplikatzen direla bermatzeko, estatu kideek eta Batzordeak AIS sisteman datu pertsonalei tratamendua ematean, kontuan hartu beharko dute tratamendu hori honako legediari lotuta dagoela:

— 95/46/EE Zuzentaraua estatu mailan aplikatzeko xedapenak,

— 45/2001 (EE) Araudia, eta

766/2008 (EE) Araudia (EBren Egunkari Ofiziala, L 218/48, 2008/8/13koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

— Araudi honetan zehaztutako xedapen zorrotzenak».

13) 35. artikulua ordez honako testu hau jarriko da:

«35. artikulua

1. 30. artikuluko 1. paragrafoaren kalterik gabe, debekatuta dago AIS sistemako parte-hartzaileek bertako datu pertsonalak 23. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako helburua ez den beste helburu baterako erabiltzea.

2. Datuak helburu teknikoetarako bakarrik erabili ahal izango dira, baldin eta kopia hori 29. artikuluan aipatutako agintariak informazio-bilaketa egiteko beharrezkoa bada bakarrik.

3. AIS sisteman estatu kide batek edo Batzordeak sartutako datu pertsonalak ezingo dira kopiatu estatu kideen edo Batzordearen ardurapean dauden datu-tratamendurako sistemetan, baldin eta arriskuak kudeatzeko sistemak, hain zuzen ere estatu mailan aduana-kontrolak bideratzeko erabiltzen direnak, edo Erkidego mailan neurriak koordinatzen laguntzeko azterketa operatiboak egiteko sistema bat ez badira.

Kasu horretan, horretarako eskubidea edukiko dute estatu kide bakoitzak eta Batzordeak esparru horretan jarduteko baimendutako analistek bakarrik, Erkidego mailan neurriak koordinatzen laguntzeko azterketa operatiboak egiteko sistemetan (hots, hurrenez hurren, arriskuak kudeatzeko sistemetan edo estatu mailan aduana-kontrolak bideratzeko erabiltzen direnetan).

Estatu kide bakoitzak Batzordeari bidaliko dio AIS sisteman datu pertsonalak kopiatu eta tratatzeko baimena duten analistek parte hartzen duten arrisku-kudeaketarako zerbitzuen zerrenda bat. Batzordeak beste estatu kideei bidaliko die zerrenda hori, eta Batzordeak azterketa operatiboak egiteko baimendu dituen adituen zerrenda bidaliko die estatu kideei.

Horretarako izendatutako estatu mailako agintariak eta Batzordearen zerbitzuak argitaratuko dira Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean, informazio helburuetarako.

AIS sistematik kopiatutako datu pertsonalak bakarrik gordeko dira datu horiek kopiatzeko zehaztu den helburua lortzeko beharrezko epean. Datu horiek gordetzeko premia berrikusiko du, gutxienez urtean behin, datu horiek kopiatu dituen AISeko parte-hartzaileak. Datu horien kontserbazio-epea ez da hamar urte baino gehiagokoa izango. Azterketak egiten jarraitzeko beharrezkoak ez diren datu pertsonalak berehala ezabatu edo anonimo bihurtuko dira».

14) 36. artikuluko 2. paragrafoko bigarren zatiaren ordez, honako testu hau jarriko da:

«Edonola ere, tratatu diren datuek erreferentzia egiten dieten pertsonen sarbidea ukatzeko aukera egongo da behaketak, txostenak edo jagoletza diskretua egiteko epean, datuen azterketa operatiboa egiten denean, edo espediente administratibo bat edo ikerketa penal bat abian denean».

15) 37. artikulua aldatu egingo da, eta honela idatzita geratuko da:

a) 2. paragrafoaren ordez, honako testu hau jarriko da:

«2. Edozein pertsonak eska diezaioke 95/46/EE Araudiko 28. artikuluan xedatutako estatu mailako edozein kontrol-erakunderi, edo 45/2001 (EE) Araudiko 41. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako Datuen Babeserako Europako Ikuskatzaileari bere buruari buruzko datu pertsonalak ikustea, bai datu horien zehaztasuna egiaztatzeko, bai datu horiek nola erabili diren edo erabiltzen diren ikusteko. Eskubide hori arautuko dute eskaera egindako estatu kideko lege- eta erregelamendu-xedapenek, bertako prozedurek eta 45/2001 (EE) Araudiak. Datuak beste estatu kide batek edo Batzordeak sartu baditu, egiaztapena elkarlanean egingo da beste estatu kide horretako estatu mailako kontrol-erakundearekin edo Datuen Babeserako Europako Ikuskatzailearekin batera».

b) Honako 3 bis paragrafo hau gehituko da:

«3 bis. Datuen Babeserako Europako Ikuskatzaileak bermatu beharko du AIS sistemak 45/2001 (EE) Araudian xedatutakoa betetzen duela».

c) 4. paragrafoaren ordez, honako testu hau jarriko da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«4. Datuen Babeserako Europako Ikuskatzaileak, gutxienez urtean behin, datuen babeserako estatu mailako erakunde eskudun guztien bilera bat egingo du, AIS sistemaren ikuskatzearekin dauden arazoei heltzeko».

16) V. tituluaren izenburu berri hau jarriko da, 7. kapituluko izenburuaren ordean: «Datuen segurtasuna».

17) 38. artikuluko 1. paragrafoan, c) idatz-zati hau gehituko da:

«c) Batzordearen eskutik, komunikaziorako sare komuneko komunikazio-elementuei dagokienez».

18) Titulu hau gehituko da:

«V *BIS* TITULUA

ADUANA-IKERKETEN ESPEDIENTEEN IDENTIFIKAZIO-FITXATEGIA

I. KAPITULUA

Aduana-ikerketen espedienteen identifikazio-fitxategia sortzea

41 bis artikulua

1. Halaber, AIS sistemak “Ikerketa Espedienteen Identifikazio Fitxategia” izeneko berariazko datu-basea eduki beharko du, aurrerantzean IEIF. Titulu honetan xedatutakoaren kalterik gabe, IEIFen aplikatuko dira Araudi honetan AIS sistemari buruz zehaztutako xedapen guztiak, eta fitxategi hori kontuan hartu beharko da AIS sistemari buruz egiten diren aipamen guztietan.

2. IEIFen helburuak hauek dira: saihestea Europar Erkidegoko aduana-lurraldera sartu edo handik ateratzen diren salgaietan aplikagarriak diren aduana- eta nekazaritza-araudien aurkako jarduerak, eta jarduera horien ikerketa nahiz lege-prozedurak erraztea eta azkartzea.

3. IEIFen helburua da identifikatzea enpresa edo pertsona horiei buruz ikertzen aritu diren edo ari diren gainerako estatu kideetako erakunde eskudunak eta Batzordearen zerbitzuak, Batzordeak 18. artikulua araberako koordinazio-espediente bat irekitzen duenean, 20. artikulua araberako hirugarren estatu batekin erkidego mailako misio bat prestatzen duenean, edo 29. artikulua araberako estatu kide batean espediente administratiboaren esparruan eskumena duten erakunde eskudunek ikerketa-espediente bat ireki edo hainbat pertsona edo enpresei buruz ikerketak egiten dituztenean; era horretan lortuko ditu, ikerketa-espediente horietako informazioari esker, 2. paragrafoan aipatutako helburuak.

4. IEIFen bilaketa bat egitean, estatu kide batek edo Batzordeak informazio gehiago behar izanez gero pertsona edo enpresei buruz erregistratutako ikerketa-espedientei buruz, estatu kide hornitzailearen laguntza eskatu beharko du.

5. Estatu kideetako aduana-agintariek IEIF erabili ahal izango dute Europar Batasunaren Tratatuaren 29. eta 30. artikuluetan aipatutako aduana-lankidetzaren esparruan. Horretarako, Batzordearen ardura izango da fitxategi tekniko hori kudeatzea.

2. KAPITULUA

IEIFen funtzionamendua eta erabilera

41 ter artikulua

1. Erakunde eskudunek IEIFen sartu ahal izango dituzte ikerketa-espedienteetako datuak 41 bis artikuluko 3. paragrafoan xedatutako helburuetarako, hau da, Europar Erkidegoko aduana-lurraldean sartu edo handik ateratzen diren salgaietan aplikagarria den aduana- edo nekazaritza-legediari buruzkoetarako, baldin eta eragiketa horiek Europar Erkidego mailan garrantzia berezia badute. Datu horiek maila hauetakoak bakarrik izango dira:

a) Estatu kide bateko zerbitzu eskudun batek espediente administratibo batean edo zigor arloko ikerketa batean ikertu dituen edo ikertzen ari den pertsona eta enpresak, baldin eta:

— susmatzen bada aduana- edo nekazaritza-araudien aurkako eragiketa bat egin dutela, egiten ari direla edo hura egiten parte hartu dutela,

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

— eragiketa horiei buruzko egiaztapenetan aztertu badituzte, edo

— eragiketa horiek direla-eta, erabaki edo zigor administratibo bat edo zigor judizial bat jaso badute.

b) Ikerketa-espeditenteak aztertutako esparrua.

c) Espedientearekin lanean ari den estatu kideko zerbitzu eskudunaren izena, nazionalitatea eta helbidea, baita espedientearen zenbakia ere.

Pertsona edo enpresa bakoitzerako erregistro bereizi batean sartuko dira a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako datuak. Ezingo da datu-erregistro horien arteko loturarik ezarri.

2. 1. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako datu pertsonalak ez dira elementu hauetatik baino harago joango:

a) Pertsonen kasuan, abizenak, ezkongabetako abizenak, izenak, aurreko abizenak eta ezizena, jaioteguna eta jaioterria, nazionalitatea eta sexua.

b) Enpresen kasuan, enpresaren izena, izen komertziala, enpresaren helbidea, BEZERako identifikazio-zenbakia edo zerga bereziko identifikazio-zenbakia.

3. Datuak epe mugatu baterako sartuko dira, 41. *quinquies* artikuluan xedatutakoari jarraiki.

41 quater artikulua

1. 41 bis artikuluan aipatutako erakundeek bakarrik izango dute IEIFen datuak sartu eta kontsultatzeko eskubidea.

2. IEIFen egindako edozein kontsultatan, datu pertsonal hauek erabili beharko dira:

a) Pertsonen kasuan, izena eta/edo abizenak, ezkongabetako abizenak eta/edo aurreko abizenak eta ezizena, eta/edo jaioteguna.

b) Enpresen kasuan, enpresaren izena edo izen komertziala, BEZERako identifikazio-zenbakia edo zerga bereziko identifikazio-zenbakia.

3. KAPITULUA

Datuak gordetzea

41 quinquies artikulua

1. Datu horiek gordetzeko epeak xedatuko dituzte datu horiek sartu dituen estatu kideko lege- eta erregelamendu-xedapenek nahiz prozedurek. Hala ere, ez dira jarraian aipatzen diren epeak gaindituko, datuak ikerketa-fitxategian sartzen diren egunetik aurrera:

a) Abian dauden ikerketa-espeditenteei buruzko datuak ez dira hiru urte baino epe luzeagoan gordeko, baldin eta aduana- eta nekazaritza-araudien aurkako eragiketarik ez badago; kasu horretan, azken egiaztapena egin zenetik urte bete igaro baino lehen ezabatu beharko dira datuak.

b) Aduana- eta nekazaritza-araudien aurkako eragiketa dagoela frogatzen duten administrazio-espeditenteei edo zigor-arloko espeditenteei buruzko datuak; baina ezingo dira sei urte baino epe luzeagoan gorde, horien ondorioz erabaki administratibo bat hartu ez bada, zigor epairik izan ez badute, edo ezta isunik edo zigor administratiborik ere.

c) Espediente administratiboei edo zigor-arloko ikerketei buruzko datuen kasuan, datuak ezingo dira gorde hamar urte baino epe luzeagoan, ikerketa horiek administrazio-erabakirik, zigor-epairik, isunik edo zigor administratiborik eduki ez badute.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Epe horiek ez dira metagarriak izango.

2. Pertsona edo enpresa bati buruzko datuak berehala ezabatu beharko dira, ikerketa-espeditante baten etapa guztietan 1. paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan aipatzen den bezala, 41 ter artikuluan aipatutako pertsona edo enpresa hori ikerketatik kanpo geratzen bada, estatu kide hornitzailearen lege- eta erregelamendu-xedapenen eta prozeduren arabera.

3. Datuak gordetzeko gehieneko epea amaitu ondoren, IEIFek automatikoki ezabatuko ditu datuak».

19) VI. tituluaren ordeztu, testu berri hau jarriko da:

«VI. TITULUA

FINANTZAKETA

42 bis artikulua

1. Araudi hau oinarritzko egintza da bertan aurreikusten den EB mailako ekintzetarako finantzaketa osatzeko, honakoa barne:

a) Estatu kideek aduanetako eragiketa bateratuak koordinatzeko beharrezkoa den azpiegitura teknikoa instalatu eta mantentzeko kostuak, bereziki 7. artikuluan xedatutako jagoletza bereziak egitekoak.

b) 20. artikulua arabera, Erkidego mailako misioetan parte hartzen duten estatu kideetako ordezkarien garraio, ostatu, eta bestelako ordainen gastuak itzultzea, Batzordeak antolatutako aduana-eragiketa bateratuetan edo erakunde horrekin batera antolatutakoetan, baita prestakuntza-saioretan, lekuan bertan egindako bileretan eta estatu kideek egindako ikerketa administratibo nahiz esku-hartzeak prestatzeko bileretan, baldin eta horiek Batzordeak antolatu baditu edo Batzordearekin batera antolatu badira.

Estatu kideek beren ordezkarien garraio-gastuak, ostatu-gastuak eta dietak ordainduko dituzte, baldin eta a) idatz-zatian aipatutako azpiegitura teknikoa Europar Batasunaren Tratatuko 29. eta 30. artikuluetan aipatutako aduana-lankidetzan erabiltzen bada.

c) azpiegitura informatikoa (euskarri fisikoa) erosi, aztertu, garatu eta mantentzeko gastuak, programa informatikoak eta sareko konexio espezializatuen gastuak, baita Araudi honetan aurreikusitako ekintzak egiteko beharrezko ekoizpen-, laguntza- eta prestakuntza-zerbitzuak ere, bereziki iruzurra saihestean eta iruzurraren aurkako borrokan.

d) Informazio-hornikuntzarekin eta informazio hori ikusteko beharrezko ekintzekin zerikusia duten gastuak, Araudi honetan aurreikusitako esparruaren barnean dauden datuak eta datu-iturriak, bereziki iruzurra saihestean eta iruzurraren aurkako borrokan.

e) AIS sistemaren erabilerarekin zerikusia duten gastuak, hain zuzen ere Europar Batasunaren Tratatuko 29. eta 30. artikuluen arabera hartutako tresnen ondorioz sortutakoak, eta Kontseiluak egintza bidez 1995eko uztailaren 26an hartutako Hitzarmenean (*), aduana-esparruan informazioaren teknologia erabiltzeari buruzkoan, xedatutakoek sortutakoak, baldin eta gastu horiek aurreikusten badute gastua Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren kontu egingo dela.

2. 1. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako Erkidego mailako komunikazio-sare bateratuko elementuak erosi, aztertu, garatu eta mantentzeko gastuak ere Europar Batasuneko aurrekontu orokorraren kontu izango dira. Batzordeak, Erkidegoaren izenean, beharrezko kontratuak egingo ditu elementu horien funtzionamendua bermatzeko.

3. Estatu kide batek edo Batzordeak eskatuta egindako ikerketa administratibo edo hartutako bestelako neurriak direla-eta sortutako gastuak ezinongo dituzte erreklamatu (baldin eta adituei ordaindu beharreko ordainsariak ez badira), AIS sistemaren funtzionamenduari lotutako gastuak alde batera utzita, eta 40. artikuluan aipatutako kalte-ordain gisa ordaindutako diru-kopuruak alde batera utzita, estatu kideek eta Batzordeak informazioa nahiz dokumentuak emateagatik eta Araudi honek xedatutakoa aplikatzeko.

(*) C 316 EO, 1995.11.27koa, 33.or.».

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

20) 43. artikulua aldatu egingo da, eta honela idatzita geratuko da:

a) 2. paragrafoaren ordeztu, honako testu hau jarriko da:

«2. Artikulu hau aipagai den kasuetan, aplikagarri izango dira 1999/468/CE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1 eta 4. paragrafoen artean xedatutakoa eta 7. artikulua, erabaki horren 8. artikuluan xedatutakoa betetz».

b) 3. paragrafoaren ordeztu, honako testu hau jarriko da:

«3. Neurri hauek hartuko dira, Araudi honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzen dituztenak, askotan horiek osatuz, 2. paragrafoan aipatutako kontrol-dun araudi-prozeduraren arabera:

a) AIS sisteman sartu beharreko elementuei buruzko erabakiak, 25. artikuluan xedatuta dagoen moduan.

b) Nekazaritza-araudien aplikazioari buruzko eragiketak zehaztea, 23. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen den bezala, AIS sisteman sartu behar direnean».

c) 4. paragrafoaren ordeztu, honako testu hau jarriko da:

«4. Komiteak Araudi honen aplikazioari buruz edozein gai aztertuko du bere presidentek aipatuta, bai berezko ekimenaren bitartez bai estatu kide batek hala eskatuta, bereziki gai hauei buruzkoak badira:

— Araudi honetan xedatutako elkarren arteko laguntzaren funtzionamendua, ikuspegi orokorretik begiratuta.

— Informazioa transmititzeko modalitate praktikoak ezartzea, hain zuzen ere 15., 16. eta 17. artikuluetan aipatutakoa.

— 17. eta 18. artikulua aplikatuz Batzordeari igorritako informazioa, ikasbide bat ateratzeko, aduana edo nekazaritza-araudien aurka ikusi izan daitezkeen eragiketak desagerrarazteko beharrezko neurriak, eta beharrezkoa bada, xedapen osagarriak onartzeko, edo Erkidego mailan indarrean dauden xedapenak aldatzea proposatzeko.

— Aduana-eragiketa bateratuen erakundeekikoa eta, bereziki, 7. artikuluan aipatutako jagoletza bereziak.

— Estatu kideek abian jarri eta Batzordeak koordinatutako ikerketen prestakuntza, baita 20. artikuluan aipatutako Erkidego mailako misioak ere.

— Informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko ohartutako neurriak, bereziki datu pertsonalena, V. tituluaren ageri dena izan gabe, eta Araudi honetan xedatutakoaren arabera elkarri emandakoa.

— AIS sistemaren aplikazioa eta funtzionamendu egokia, baita sistemaren segurtasuna bermatzeko hartutako neurri tekniko eta gauzatze-neurriak ere.

— Datuak AIS sisteman gordetzeko premia.

— Araudi honetan xedatutakoari jarraiki, AIS sisteman sartutako informazioaren konfidentzialtasuna babesteko hartutako neurriak, bereziki datu pertsonalena, eta, halaber, datuei tratamendua emateko arduradunek xedapen guztiak betetzen dituztela bermatzeko neurriak.

— 38. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoari jarraiki hartutako neurriak».

d) 5. paragrafoaren ordeztu, honako testu hau jarriko da:

«5. Komiteak aztertuko du 37. artikulua aipatutako kontrolerako estatu mailako erakundeek AIS sistemaren funtzionamenduan aurkitutako edozein arazo. Komitea gutxienez urtean behin elkartuko da, *ad hoc* osarearekin».

21) 44. artikuluan eta 45. artikuluko 2. paragrafoan, «V. tituluak, AISari buruzkoa» barik, «V eta V bis tituluak» idatziko da.

22) 51 bis artikulua gehituko da:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

«51 bis artikulua

Batzordeak, Erkidegoko estatuekin lankidetzan arituz, Araudi hau aplikatzeko hartutako neurriei buruzko txostena aurkeztuko die urtero Europako Parlamentuari eta Kontseiluari».

23) 53. artikulua aldatu egingo da, eta honela idatzita geratuko da:

- a) 1. paragrafoko zenbaketa ezabatu egingo da.
- b) 2. paragrafoa ezabatu egingo da.

2. artikulua

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean Araudi hau.

Araudi honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon eginga, 2008ko uztailaren 9an.

Europako Parlamentuaren izenean

Presidentea

H.-G. PÖTTERING

Kontseiluaren izenean

Presidentea

J.-P. JOUYET